	OÑATIKO UDALA	
	Erregistro Data	
	2016. URT 26	
SARRERA	IRTEERA	
150		

EPELEKO HONDAKINDEGIAREN INGURUAN EHBILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA

Azken egunetan Epeleko Hondakindegia inguruan hainbat hedabideetan adierazi diren asmoen aurrean honako mozioa aurkezten dio Oñatiko EHBilduren udal taldeak Udaleko osoko bilkurari bere egin dezan.

Debagoiena aintzindaria da hondakinen kudeaketa berriak, jasagarriak eta eraginkorrak ezartzeko garaian. Birziklapen tasetan aurrerapausu esanguratsuak eman ditugu azken urteetan eta izandako lorpenak txalotuak izan dira izaera ezberdineko hainbat erakunde eta eragileren partetik.

Epele bailarako industrien hondakin ez arriskutsuak, bailarako obretako hondakinak eta etxeetako obra txikietatik ateratzen diren eskonbroak isurtzeko hondakindegia da. Eskualdeko profesional, autonomo eta enpresentzat behar beharrezkoa den zerbitzu publikoa eskaintzen duen azpiegitura da.

Gipuzkoako Hondakinen kontsortzioa eta Urola erdiko Mankomunitatea Lapatzeko hondakindegia biziraupenaren inguruan negoziatzen ari dira. Akordiorik ezean, Gipuzkoako errefus guztia Epeleko hondakindegira bideratzea aztertzen ari omen da GHK.

Debagoienak hilero 400 tona inguru errefus sortzen ditu. Eta hedabideetan jasotakoa betetzen bada, Epelen hilean 13500 tona errefus jasoko genituzke hilabete gutxiren buruan. Eguneko 50 kamioi errefus gutxi gorabehera.

Hedabideetan jasotakoaren arabera dena. Hau ere esanguratsua benetan. Debagoieneko Mankomunitateak du gaiaren inguruko azken erabakia hartzeko eskumena, baina momentuz, ez da inongo gobernu organotan gaiaz hitz egin.

Guzti hau kontuan izanda, honakoa proposatzen du Oñatiko EHBilduren udal taldeak Udalbatzak bere egin dezan:

1-Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari gaiaren egoeraren inguruko informazio osoa ematea eskatzen diogu.

2-Debagoieneko Mankomunitateak herritarren gehiengoaren interesak defenda ditzan eskatzen dugu, horretarako eskumena duten organoetan gaia sakon eztabaidatu, erabaki, garatzeko behar beste baliabide jarri eta gardentasun osoz informazioa ordezkari guztiekin partekatuaz.


3-Eskualdeko erakundeei azken urte luzetan hondakinen inguruan jorratutako hezkuntza eta

sentsilibizazio ibilbidean sakontzen jarraitzea eskatzen diegu.

4-Epeleko Hondakindegia egun eskualdean eskaintzen duen zerbitzua dagoenetan mantentzea eskatzen dugu.

5-Erabaki honen berri Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari eta Debagoieneko Mankomunitateari ematea.”

Oñatin, 2016ko urtarrila

A handwritten signature in black ink, consisting of a vertical line with a loop and a long horizontal stroke extending to the left.